

# Inoiz sua piztu duenak

Irati Majuelo

**H**au ez da poesia/ eta ni ez naiz poeta». Abi-sua luzatzen du hasiera-hasieran Mikel Sotok: ohikoa izan duen editore paperetik bestaldera, idazle gisa inprimatu ditu paperean gaztaroko min eta bizipenak. Su bizi-tan inprimatu ere. Argitaratu berri duen lehen poesia liburuan, 1990eko hamarkadako Iruñean astindutako kale eta bizitzak ditu mintzagai, lehen lerrotik eta lehen pertsonan.

Inoiz sua piztu duenak soilik begira dezakeen liluraz luzatzen du begirada iraganera, hiriko kaletara, erraietara. Literaturan gutxi ezagutu dugun garai baten lekuko, eta kontakizunen fikzio-natzea beste gerra batzuetan sartuta dagoen honetan, ahanzturan geratzeko arriskua duten pa-

sarte eta sufrimendua ekartzeak balioa ematen dio liburuari. Erro-mantzatu gabe baina bizitakoari garrantzia emanez, suak eta izerdiak markaturiko gaztaroa marrazten du Sotok, eta emaitza barne-barnetik ateratako poesia da, pertsonala oso, baina kolektiboki senti daitekeena. Izan ere, beste ezeren gainetik, maitasuna,



## 'Suak pizten direnean'

**Idazlea:** Mikel Soto Nolasko. **Argitaletxea:** Elkar.

kidetasuna eta harrotasuna darizko liburuari.

Inoiz sua piztu duenak soilik eskuan senti dezakeen dardaraz idatzirik daude poemak. Adrenalinaz eta bertigoz. Agerikoa da luzaroen gordetako zerbaiten askatze-mekanismozat funtzionatu duela idazketak, barne-ariketa handia eskatu diotela poemek Sotori. Hala, gaztaroko grinaz bezainbat mintzo da koldarkeriaz, eta koiunturak barrikadaren erdian jartzera bultzatzen zuen indar-bulkadaz. Anekdotak heroikoak eta zauri irekiak aurki daitezke, barkamen eta maitasun mezuak. Adoreari zein beldurrari buruz ari zaigu idazlea, muinetaraino bizi izandako ikaraz, ohikoa ez den posiziotik. Haatik, gaztazko politikoetan publikoki gutxitan erakusten diren sentimendua argitaratzen dituzte, gordinki eta lotsarik gabe. Zinez, zintzotasuna da liburuaren baliorik handiena.

Ahozkotik gertuko hizkera dabil, eta indar handia ematen diote, logikoa denez, erreferentzia, gertaera, zein izen errealek, irakurlea idazlearengana hurbiltzen baitute. Errealitateak, ordea, gainez egiten dio sarri poesiari;

bihotzez eginiko deklarazioen eta kontakizun historikoaren arteko erdibidean geratzen dela esan daiteke. Idazleak berak planteatzen duen hutsunea da: «Zergatik ez da sortu gu guztion artean/ piztutako su horren tamainan/ kantatzeko gai den poetarik».

Oso poesia narratiboa da; liburuak ere hari narratibo bati jarraitzen dio hasieratik amaieraraino. Horrenbestez, gure historiaren pasarte gogor bezain bizi bati eskainitako poema luze baten gisa irakur liteke, erritmo-aldaketei eta lirikotasunari pisu handiagoa eman izan balie oda indartsu bat izatera iritsi zitekeena. Alabaina, intentsitate-maila antzekoa gordetzen du poema-bilduma osoan zehar, eta ondorioz, epikotasunaren lehertzeko zein emozioen dardarei gertutik behatzeko aukerak galtzen ditu.


Zalantza gazi-gozaorekin helitzen da bat amaierara: kronika historikoaren garapen handiagoko neurrian edota fikzioaren askatasunaren babespean ez ote luketen dirdira handiagoz su hartuko Sotoren bizipenek. Idazleak, ordea, poesian soilik aurki zezakeen, akaso, erraiak lehertze hori.



## 'Txokolategia'

**Idazlea:** Yolanda Arrieta. **Argitaletxea:** Denonarte.

**G**aldere bat eginez abiatu du Yolanda Arrietak gazteei zuzendutako liburu berria: «Zergatik ez da ageri txokolate maistrarik historian?». Literatura fantastikoko lana da, eta erabakiak hartzeko orduan ohiturek eta rolek duten pisua du mintzagai. Egileak ia argitaratutako *Ataria* liburuarekin lotura dauka.



## 'Gizalabak'

**Idazlea:** Bakarne Atxukarro. **Argitalpena:** Autoedizioa.

**A**ntzinako eta egungo emakume «bixi eta paregabeen» biografiak eraman ditu astero Bakarne Atxukarrok Euskalerrira Irratira. Uhinetan gal ez daitezten, paperera eraman ditu orain, «lau haizeetara hedatzeko». Multimedia liburu osatu du, QR kodeak, testuak eta irrati-ko podcastak uztartuta.



## 'Zuhaitza'

**Idazlea:** Aitor Arana. **Argitaletxea:** Erein.

**A**itor Aranaren haur eta gazte literaturako lan berriak esperantoa ezagutu berri duen haur bat du protagonista: Unai. Nazioarteko hizkuntzaren bidez Tanzaniako mutil bat ezagutuko du. Biak gaixorik daudenez, haien sendabidea izango den zuhaitzaren bila abiatuko dira.

# Olgetan

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**L**iburuaren azala begiratu besterik ez dago jakiteko barruan topatuko duguna zer den. Jolasa eta haurtzarora elkarri loturik datozen bezalaxe, album ilustratu honetako istorioa dago olgetarekin bat eginda: irakurtzea jolastea da.

Ezkutaketan ari direlarik, haurrak elefantea topatu beharko du, disimulu zaileko egokieratan, baina, harrigarriki, haurrak ez du ikusten. Guk bai, ordea. Guk nabarmen ikusten dugu elefantea sukaldako gortinen atzean, oheko tapakiaren azpian, lanpararena egiten tulipa buruan... Eta esateko gogoia pizten zaigu: «Hor dago!», «Baina ez duzu ikusten?», «Hortxe dago eta!», emozioarekin, lau, bost, sei, zazpi urte ditugulako, eta halaxe bizi dugulako jolasa, liburu pertsonaiari elefantea non dagoen eskuarekin imintzioka erakutsiz.

Ilustrazio handiek eszena bakoitza garbi ikusten laguntzen dute, funtsezkoan jarririk ahalegina.

Testua ia ez da behar, eta dagoena letra larriz dago, irakurle hasiberrien mesederako.

Bitartekari arduratsuei eskatuko nieke detaileei errepara diezaietela, mezu positiboz betetako obra delako, baina azpitik, haurraren irakurraldia molestatu gabe.



## 'Ikusi duzu Elefante?'

**Idazlea:** David Barrow. **Ilustratzailea:** David Barrow. **Itzultzailea:** Garazi Arrula. **Argitaletxea:** Txalaparta.

# Emozioak sentitu egiten dira

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

**G**aur egun nonahi eskaintzen dira emozioak lantzen dituzten obrak. Ontasun gehi-garri berria balitz bezala. Orain arteko literaturak emozio edota baliorik erakutsi ez balu bezala. Batzuetan izenburutik hasita nabarmentzen dira – *Asierren jelsorkatasunaren arantza*, *Eloien zorientasun olatua*, *Lorearen amorru-ekaitza*; besteetan bildumak abisatzen digu – *Sentipuinak bilduma*. Eta zenbat eta gehiago tematu *lanketan*, orduan eta istorio ahul, ezdeus, eta mengelagoak kontatzen dituzte. Kaxkarrak mami, eta oso antzekoak formaz. Hobe lukete *Amets Gaizto nire armairuan* albumaren ildoari jarraitu. Emozioa du helburu Mayerren obrak, baina horretarako is-

torio narratibo eta bisual indartsu batekin jantzen du, irakurketa eta hausnarketa bi plano desberdinetan kokatuta. Izan ere, plazer narratiboa sentitzen den bezala, emozioak ere sentitu egiten dira, eta esperientzia literarioa ikaspen emozional bihurtzen da. Esaten errazagoa da egiten baino. Horixe da literatur sortzaileen artea.

Bigarren argitalpena egin diote aurten, eta erosi beharrekoa da, agortu aurretik.



## 'Amets Gaizto nire armairuan'

**Idazlea:** Mercer Mayer. **Ilustratzailea:** Mercer Mayer. **Itzultzailea:** Koldo Izagirre. **Argitaletxea:** Pamiela Kalandraka.